

HERNANIK kronika

2003 urtea
Martxoak 20
Osteguna
Alea: 723
www.hkronika.com

‘Sagarrondotik’ ekimenak 15.000 lagun espero ditu datorren asteburuan Hernanin


■ Ostiralek igandera kontzertuak daude Txantxillan, pelota eta herri kirolak frontoian, bazkariak, azoka, sagardo dastaketa... ■ Festa guztia antolatzeko 1.200 lagun inguru ariko dira lanean.

SAGARRONDOTIK taldeak festa erraldoia antolatu du datorren astebururako, sagardoaren bueltan. Festaren helburua da sagardotegien ingurune honetan urteroko festa haundi bat antolatzea eta gure eskualdea ezagutzera ematea, antolatzaleek Kronikari esan diotenez. Horretarako izen haundiko musikari, pelotari, harri jasotzaile, bertsolari eta bestelakoak dakarzkite eta bazkariak, erakusketak eta sagardo probaketa ere badaude.

Izen haundiak

Kontzertuetan kanpoko eta Euskal Herriko talde famatuak eterriko dira: Raimundo Amador, Kiko Veneno, Desmond Dekker, La Polla, Gaitib... hauek denak biltzea kosta da, baina, antolatzaleen hitzetan uste baina erraztasun gehiago ere eman ditu zentralek. Izendatuta daudenez gain, sorpresaren bat ere izango dela esan digute Sagarrondotik ekimenekoek. Larunbateko sagardo probaketa, berriz, Euskal Herri osoko 53 sagardotegietako sagardoa egongo da aukeran, eta arratsaldean punta puntako pelota partidu profesionala. Herri kiroletan urrezko aizkorako finala errepikatuko dute Arrospide eta Peñagarikanok Larretxea eta Mindegiren kontra igandean, eta harri txikieta ondotsuena dabiltsan harrijasotzaileak ere eterriko dira: Goenatxo, Izeta eta Irigoien gaztea. Txantxillan, berriz, bertsolariak, 1.200 lagunen-tzako bazkaria eta Alboka musika taldea izango dira Angel Alkainek aurkeztuta.

Sarrerak salgai
Kontzertuetarako sarrerak



Ikor Kotx

Kiko Veneno da Hernanin kontzertua emango dueneko bat.

kaxkoko tabernetan daude. Ezinduentzat gune bereziak ere jarriko dituzte kontzertuetan (informazioa 679 319679). Herri kiroletarako eta pelota partidurako sarrerak Juxto, Onddi, Aralar, Guria eta Kitto tabernetan daude eta bazkarirako txartelak Aralar, Oinddi, Txili eta Riojanotan.

Jendetza haundiak

Ekitaldiak ikusita jende pila haundi espero da Hernanin ostiralek igandera; antolatzaleek diotenez 15.000 inguru. Euskal herri osotik dator jendea eta Euskal Herriaz kanpotik ere bai. Antolatzaleek ekitaldieta sarrerak lehenbaileen hartzeko gomendioa zabaldu dute, karpak 7.000 lagunentzako tokia baitu. Hori guztia organizatzeko 1.200 lagun behar dira lanean: garbitzeko, montajerako, herri zaintzarako eta abar. Hernanin tablo bat jarri dute pronto dagoen jendeak izena emateko. Biteri kultur etxe-

an apuntatu behar da.

Aparkamenduekin ere nahiko saltsa izaten da Hernanin, jende pilaketak direnean. Hori ebitatzeko Ibai Ondo poligonoan, Sagastizábal eta Remy Harinera inguruaren jarriko dituzte aparkalekuak eta ordu jakin batzuetatik aurrera herrikoi bakarrak utziko zaie zentro aldean kotxez sartzen. Txantxillako aparkamenduan ezingo da gaurtik datorren astelehenera arte aparkatu, karpa jartzeko lanak hasiko dituzte-eta.

Kiroldégia lotarako

Kanpotik datorren jendeak lo egiteko tokia izan dezan, kiroldégia preparatuko dute eta bonoak saltzen ari dira. Lagun bakoitzak esterila eta zakua ekarri behar ditu eta dutxak eta komunak irekiak izango dira kiroldégian. Asteburuan kirola egin nahi duenak igerilekua izango du irekita, ostiral arratsaldetik astelehenera. Bi pistak, gimnasioa eta gainerako zerbitzuak itxita egongo dira. □

EGITARUA

MARTXOAK 21, OSTIRALAK
21:00etan frontoian: Euskal dansak, Ttarla taldea eta Akelarrea.
22:30 Txantxillan: kontzertua Raimundo Amador, Desmond Dekker, Fundación Tony Manero, La Polla eta Gaitib.

MARTXOAK 22, LARUNBATA

11:00etan Txantxillan: Sagardo mostra eta festa.
17:00etan frontoian: Pelota partiduak: Oiaga-Imaz/Esnal-Arroio Titín III-Gorri III/Agirre-Barriola.
21:00etan Txantxillan: Kontzertua: Kuraia, Kiko Veneno, Gari, Potato eta Mallacán.

MARTXOAK 23, IGANDEA

11:00etan kiroldégian: Herri kiroldégia: Arrospide, Peñagarikano, Mindegia, Larretxea, Izeta, Goenatxo eta Irigoien.
13:00etan Txantxillan: Bertso sailoa: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbio. Sagardo dastaketa, bazkaria eta Alboka taldearen kontzertua.
17:00etan frontoian: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak eta Txan magoa.
19:00etan frontoian: Diskofesta Joseina Etxeberriarekin.

Osasunaren astea Andragoton

OSASUNAREKIN lotutako gaiak landuko dituzte Andragoton, biharki datorren larunbatera. Biher hipnoterapia klinikoari buruz hitz egingo du Luis Ceballosek 19:30etan; asteazkenean, sexualitate mundu aldakor batean gaia landuko du Miren Telleriak, 19:30etan; ostegunean, erditzea eta jaiotzeari buruz ariko da Cristina Aznar, 20:30etan; ostiralean Gure osasuna noren eskuetan? galderari eran-tzungo dio Eneko Landaburuk, 19:30etan; eta larunbatean, masaje sensitibo gestaltikoa, ikitzearen ikuspuntu psikokorporala landuko du Gracia Mª Salaberriak, 19:00etan. □

PELOTA

Grajal-Ezeizak ezin

GRAJAL eta Ezeizak Euskal Herriko txapelketako finala zuten larunbatean Zizurkilen, behar Zana taldearen kontra. Hernanik infantilek, partidu gogorra jokatu arren, 18-6 galdu zuten. □

ERRUGBIA

Hernanik 22-Ordiziak 32

GALDU arren gerra haundia eman zion Hernanik Ordiziari atzo Landaren. Partidu aurretik Ordizia zen faborito, baina, partidu osoan maila altuko bi taldek jokatu zuten. Hernani galtzen hasi zen baina ez zuen etsi eta defentsa gogorran oinarrituta partidua bukatzen ordu laurden inguru falta zela 22na zijoazten. Momentu horretan entsaioa egin zuen Ordiziak eta hernaniarrak behera egin zuten. Orain 3garren dijoa Hernani eta normalean postu horretan bukatuko du liga. Bukatzeko 3 partidu falta ditzak: Santander (atzeratua), Atlético eta Bilbao.

Bestalde, Euskal Herriko fina-laurrekoetako lehen partidua zuten jubenilek eta kadeteek. Jubenilek 48-0 galdu zuten Elorrioren kontra eta kadeteek 12-26 irabazi Eibarri. Orain bueltako partiduak jokatu beharko dituzte. □

Hernaniko
Kronika
Interneten
www.dobera.com


PROCOLOR ZEN-
Landaribar, s.l.
Pintatzeko ekipoak
Industri eta dekorazio rako
pinturak
Pintatutako paperak


mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI


Argitarapen honen laguntzaile:
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia beti
Bikain...




Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI



Ohorezko kofradiakide berriak, Tolarea Lehendakaria eta Hernaniko Alkatearekin batan.

Ohorezko zazpi kofrade berri baditu Tolareak

■ Zin egin dute sagardoaren alde egingo dutela: Tito Irazustak, CDHko pelota sailak, Edurne Pasabanek, Mari Carmen Urangak, Joxe Miguel Bereziartuak eta Jose Juan Castillok.

TITO Irazusta kirol kazetari ezaguna, CDHko Pelota Saila, Edurne Pasaban mendizalea, Mari Carmen Uranga oilar eta kapoiekin hainbat sari atera dituena eta Sagar Egunean laguntzaile ibiltzen dena, Joxe Miguel Bereziartua sagardogilea, Jose Juan Castillo Casa Nikolasako sukaldaria eta Felix Ares de Blas Kutxaguneko burua (Ares de Blasek ez

zuen ekitaldian egotekiz) ohorezko bazkide egin zituen atzo Tolarea sagardo naturalaren kofradiak, Biteri kultur etxeen. Denek eskerrak eman zizkioten Tolarea taldeari eta denek egin zituzten sagardoaren aldeko hitzak. Lehen hitzak Tito Irazustak egin zituen eta esan zuen beren etxeen oso kirolariak izan direla beti eta ura edan izan dela,

baina, urarekin batean baita sagardoa ere. Sagardoaren alde amak egin izan duela beti eta ohorezko kofrade eginda bera adina ama poztuko dela ere esan zuen Irazustak.

Ekitaldian dantzari, kantari eta abar izan ziren eta bukaeran kale buelta egin zuten kofradia guztiak Hernaniko banda aurretik zutela. Eguna Larregainen bukatu zuten. □

BERTSOLARITZA

Estitxu Eizagirrerentzat Orixek Txapelketa

FINALEAN hiru hernaniar izanda txapela ekartzeko esperantzan joan ziren atzo Añorgara Estitxu Eiza-girre, Iñaki Zelaia eta Aritz Zerain eta baita etxera ekarri ere. Estitxu Eizagirrek lortu du aurtengo Orixek Txapelketa, saiko gazteenak hain zuen ere. Saioa ona eta berdindua izan zen eta Eizagirrek bakarkako lanean irabazi zuen txapelaren paska haundi bat. Gainetik pasatzen ari zitzakion gerrako abioiei hiru bertso dotoreak bota zizkien Irakiarren paperean.

Eizagirrek saio oso onak egin ditu azken aldiko sarketen eta gehienetan finalean izan da. Orixeko txapelak konfiantza hartu eta koska bat gora egiteko balio diezaiok hennaniarrari. □



Eizagirre azken agurra pentsatzen. Pello Zubiriari eskaini zion txapela.

KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Taldeak	Emaitza	PELOTA	Taldeak	Emaitzak
Gorengoa	Pasajes-Hernani	8-0	Kronika Txapelketa		
Emakumeen kopa	Amara Berri-Hernani	0-4	Esk. 2nak	Zelai-Urdangarin/Tutu Amahr	17-22
ERRUGBYA			Esk. 2nak	Urtzi-Quipu/Huizi Vilarr	17-22
1 Liga Nazionala.	Hernani-Ondizia	22-32	Eskuz	Esko, Gipuzkoako eta Udaberri txapelketak	
Jubenilak Euskadiko Txapelketa	Eibar-Hernani	48-0	PalGoma	Abaen endiaskasua-San Sebastian	22-19
Kadeteak Euskadiko Txapelketa	Eibar-Hernani	12-26	Kadeteak	Txipilo-Lujanbio/Bumartea-Arizala	30-19
WATEPOLOA			PalGoma	Fernandez-B. Amantes/B. Etxaga	22-20
Euskal Herriko liga	Hernani-Santona	9-5	PalGoma	Hoz-M. Anchobas/A. Izatana	14-30
2 Euskal Herriko liga	M. Aristas-Hernani	15-5	Palamotz	Lujanbio-G. Galiza/O. Iangu	25-40
			Infantilak	G. M. Ezaiza/B. Beharzana	6-18

HITZ BITAN

✓ SANTA BARBARA ELKARTEA

Mus Txapelketarako izen ematea zabalik. Santa Barbara elkartean zabalik da mus txapelketarako izen ematea, apirilaren 1 arte. Izena elkartean bertan eman behar da edo zuzendaritzako kide bat esan behar zaio bestela. Prezia biko-teko, 14 euro.

✓ EKINTZA DANTZA TALDEA

Ekintza taldeko dantzari izandakoek bilera. Ekintza dantza taldeko dantzari izandakoak datorren astearte biltzeakoak dira Langile ikastolako gimnasioan (Laubidieta), arratsaldeko 20:00etan. Informazio gehiago 943 552185 telefonoan (Txuri).

✓ URUMEA IKASTOLA

Anorexia eta Bulimia hizketagai. Anorexia eta bulimia buruzko hitzaldia dago bihar Urumea ikastolan, azken aldian egiten ari diren jardunaldien barruan. Hitzaldiaren izenburua da *Elikadura nahasteak: anorexia eta bulimia. Prebentzio programa*. Biher, astearte, Elkanoko zentroko liburutegian, arratsaldeko 19:00etan.

✓ WATERPOLOA

Hernani Ak irabazi, hil ala biziko lehen partidua. Hernani A jeitxi ez jaitsi dabil aurten Euskal Herriko lehen mailan eta pauso garrantzitsua eman zuen atzo Santoña taldeari 9-5 irabazita. Hernanik 3 goleko aldea behar zuen mailari eusteko esperantzak izateko eta hori ere lortu du. Golak: Ibon Mendozak 2, Artur Casasek 1, Iker Bereziartuak 4, Mikel Etxeberriak 1 eta Juan Lumbreras 1. Datorren larunbatean ere partidu klabea du Hernanik, Santurtzin. Irabazi ezkerro promozioa jokatuko luke, baina, galdu ezkerro bigarren mailara jaitsiko litzateke Hernani. Taldeak afizioaren beroa nahi du irabazteko indarrak emateko eta autobusa jarriko du debalde, nahi duen guztiarentzat. Interesatuek deitu 620 391099 telefonora, gaueko 22:00etatik 23:30etara.

Hernani Bk 15-5 galdu du Bizkaian. Bigarren taldeak erraz galdu zuen atzo, Leioan, Maristasen etxeen. Hernaniarrek eutsi zieten bizkaitarrei lehen zatian, baina, bigarrenean kontraerasora ekin zion Maristasek eta hor min haundia egin zion Hernaniko taldeari. Bigarren mailan Hernani 8garren dijoa momentu honetan. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

■ Taxiak:

943 550093

■ Udalzaingoa:

943 333288

■ DYA:

943 464622

■ Anbulatorioa:

943 006666

■ Jokalari anonimoak:

943 331103

FARMAZIAK

ASTELEHENIA

■ Egunez: Etxebeste

Elkano 2

■ 943 552087

■ Gauez: Gil

Lasarte. Nagusia 24

■ 943 361529

ASTEARTEA

■ Egunez: Aizpuru

Latxunbe Berri 11

■ 943 336077

■ Gauez: Rodriguez

Lasarte. Nagusia 42

■ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke goiztan. (Informe eta erreferentziekin). Deitu: 699 14 92 85

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

55 urteko emakume batek etxeko lanak egin, umeak zaindu edo antzeko lanak egingo lituzke. Erresponsablea eta langilea. Deitu: 943 55 54 36

LAGUNTZAILEA, agentea edo Justizi-ofiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegietan lana. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENaren deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomatura edo lizenziatura. Erdi mailako ingelera. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziar gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaitez. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babesguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduatu. Presta zaitez. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

SUHILTZAILEAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezin hobekar. Betebeharra: Eskola Graduatu. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GARRAIOLARIA. Garrailari profesional izateko gaitze-tituluak lor ezazu ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARIKI laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduatu. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. Eskakizuna: Eskola Graduatu. Presta zaitez ADOZ 943 44 45 09

LIBURUTEGI laguntzailea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzaileak). Bertako udaletan deialdiak zabalik. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalterno bezala lan egiteko. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09